


GaiLeta

MaJiKoaK




Izen goitia: Marmoka

Zikloa: Lehen Hezkuntza III. zikloa

Hizkuntza: Euskera

GAILETA MAJIKOAK

Duela 100 urte Xabier izeneko mutil abenturazale bat, mendiz inguratuta zegoen herri batean bizi zen. Xabierrek 11 urte zituen eta bere kolore gustokoena urdina zen. Gauza asko jaten zituen, baina benetan ezin zuena jakiarekin dilistak ziren. Lagunen etxeokak: ez ditu gustoko, etxeokak: ez ditu gustoko, amonaren etxeokak: ez ditu gustoko, zabortegikoak: ez ditu gustoko. Gau beltz batean, Xabier bere familiarekin afaltzen ari zen eta ohera joan baino lehen zortearen gaileta bat jatea bururatu zitzaion, baino ez zekien gaileta sinple hori zenbat abentura ekarriko zizkion. Gaileta irekitzean, hau ikusi zuen:



“ALIEN BATZUK BAHITU EGINGO ZAITUZTE, BAINO EZ DUTE ZURE GORPUTZAREKIN ESPERIMENTURIK EGINGO”

Xabierrek irakurri zuen heinean, zakarrontzira bota zuen eta ez zion inongo garrantziarik eman. Soilik farre egin zuen eta ohera abiatu zen. Biharamunean, esnatu zenean, leku oso arraro batean esnatu zen, hain arraroa zen amesgaizto bat zirudiela. Alienez inguratuta zegoen, baina ez hori bakarrik, mundu paralelo batean zegoen! Ez zegoen ezta gizaki bakar bat ere, edozein tokitara begiratuta ere bakarrik alienak zeuden; baino ez ziren pelikuletako alienak, baizik eta oso gaizki dantzatzen ari ziren alien arraro batzuk. Tupustean, atzetik zetorren alien batek ahoa estali zion, beste alien batek, jendea lokartzeko erabiltzen zen sustantzia arraro berde bat txertatu zion. Gutxinaka gutxinaka, begiak itxi zitzaizkion eta alien guztiak, besoetatik hartu eta berak ezer jakin gabe, beste gela batera eramane zuten. Bi egun pasata, Xabier aulki batera lotuta zegoela esnatu zen. Oso izututa zegoela, alien batek, honako hau esan zion:

-Ikusten duzun bezala, mundu honetan jende guztia alienak gara, bat izan ezik, eta ez, ez zara zu. Zure laguntza behar dugu, bestela, gela honetan ustelduko zara -esan zuen alienen nagusiak.

-Eta laguntzen badizut, zer emango didazu? Edo nola iritsiko naiz etxera?

-Gure ontzi honen erdialdean ate bat dago, handik etorri zara eta handik bueltatuko zara. Baina giltza behar da atea irekitzeko. Dena ongi ateratzen bada, giltza emango dizugu, hori sari nahikoa da zuretzat.

-Ongi da. - erantzun zuen Xabierrek.

Hurrengo egunean, oso goiz esnatu ziren eta gizaki misteriotsu horren bila hasi ziren. Herriaren plazara jeitsi ziren eta alien bakoitzak, herriko zonalde batean bilatu

zuten. Xabier ez zekien nora joan, orduan, herri osoan bilatu zuen baino aurkitzen zuen izaki guztiak alienak ziren. Denbora luzea pasa ondoren, lur jota zegoen eta besteengana bueltatu behar zenean, txabola arraro bat ikusi zuen. Bertan sartu eta ikusi zuenaren ondorioz, liluratuta geratu zen.

-Ama! Zu zara?

-Maitia! Ez zinen alien bat bihurtu? -esan zuen Xabierren ama.

-Ez ama, ni beste mundu batekoa naiz, eta gaileta majiko baten bidez hemen agertu naiz.

-Ba mundu honetan, alienak mundua konkistatu zuten, duela urte bat. Jende guztia makina batean sartu zuten eta alienak bihurtu ziren.

-Alienak esan zidaten baina... Hemengo munduko ni eta hemengo munduko aita, alienak dira!

-Bai. Baina lasai egon.

-Ezin dut lasai egon,-esan zuen ikaratuta Xabierrek- Alienek esan didate zu bahitu behar zaitudala, eta ezin dut nire ama bahitu! Bueno... Zerbait bururatuko zait.

-Kontu handiz ibili, mesedez.

Xabier txabolatik atera eta bat-batean, alien nagusia agertu zen:

-Hemen ez dago ezer -gezurtu zuen Xabier.

-Ba bilatzen jarraituko dugu.

Xabierrek ez zekien zer egin, bere ama bahitu eta geroago elkarrekin ihes egin, edo ez esan ezer eta mundu horretan geratu bizitza osorako. Bere buruari bueltak ematen ari zizkion bitartean, bilatzen jarraitu zuen, besteek ezer ez susmatzeko. Segituan, alien nagusia agertu zen, eta ontzi nagusira bueltatzeko eskatu zion. Xabier, ume zintzo bat bezala, joan zen. Hain azkar joan zen, bazirudiela goxokiz beteta zegoela. Iritsi zirenean, alien kuxkuxero bat, Xabierren logelan sartu zen.

-Zergatik etorri zara korrika? -hasi zuen alienak.

-Zergatik galdetzen didazu hori? Trivial-era jolastu nahi edo zer?

-Arraroa iruditu zaidalako.

-Ez naiz arraroa, bakarrik hotz nintzen, hori da dena.

-Ados, agur.

Aliena, arraro aurpegia jarritz, gelatik atera zen eta Xabier, bere ama nola lagundu, pentsatzen hasi zen. Egun guztia pentsatzen pasatu zuen eta konturatu zenerako, gaueko hamarrak ziren. Azkenean, lo geratu zen. Handik bi egunetara, irratia entzuten ari zuenean, arreta deitu zion albiste bat entzun zuen:

Gaur, alien beste talde bat, atzoko leku berdinerara atera da, gizaki misteriotsua bilatzera.

Xabier, ezin zuen sinetsi entzuten ari zuena, bere ama zegoen lekura joan behar ziren! Korrika eta presaka, Xabierrek, alienen bila joan zen eta beraiekin joatea eskatu zuen, bere ama babesteko. Ezetz esan zioten eta bere gelara bueltatu zen. Alienak bueltatu zirenean, bere ama negarrez zegoela ikusi zuen, gainera eskuburdinekin. Alien nagusia, beregana joan zen eta honako hau esan zion:

-Zugan konfiatu nuen, txabolan ez zegoela esan zenidan, baina erakutsi didazu ezin naizela zutaz fidatu.

Hori esanda, Xabierren gela berean sartu zuten ama.

Gizakiak, alienetan bihurtzeko erabiltzen zen makina apurtuta zegoenez, ez zekiten Xabieri eta bere ama nola alienak bihurtu. Baina momentuz gela horretan geratuko zirela erabaki zuten alienak. Bestetik, Xabier eta bere ama, guztiz etsita honako hau esan zuten:

-Bueno, orain gauzak ezin dira okerragoak izan ezta?

Momentu horretan alienak etorri ziren, dilista plater batekin.

-Bai, okerrera joan da -esan zuen Xabier Alienak hil nahian-, ez dut gehigo hitz egingo.

Ama barrezka hasi zen, Xabier dilistak frogatzean jarri zuen aurpegiarekin. Xabier, bapatean, mineko aurpegi bat jarri zuen eta ahotik giltza bat atera zuen.

-Ze mina! Uste dut hortz bat apurtu dudala.

-Zer gertatu zaizu maitia?

-Giltza bat aurkitu dudala nire dilistetan! Ez da izango...

-Ate hau irekitzen duen giltza! Alienak bai direla tuntunak, eskerrak babestu naizela eta oraindik gizakia naizela.

-Ba bai, giltza dilistetan erori zaie! Baina orain, nola irekiko dut nire mundura bueltatzeko behar dudan giltza?

Alien batek, platerren bila sartu zen eta Xabier besarkada bat eman zion, hau esanda:

-Oso onak zeuden dilistak, eskerrik asko.

Ama ezin zuen sinetsi gertatzen ari zena.

-Noiztik gustoko dituzu dilistak?, lehen botaka egiteko moduan zeuden -esan zuen amak alienak joan orduko.

-Mundu honetatik joan nahi dudan momentutik -erantzun zuen Xabier esku artean giltza bat zeukala.

-Goizeko 1:30-tan isilik, gelatik aterako gara.

Gauean, puntual-putual, 1:30-tan gelatik atera ziren eta ontziaren zegoen atea ireki zuten.

-Nirekin etorri nahi duzu? -galdetu zuen Xabier.

-Ez lasai ni mundu honetan geratu behar naiz. Agur -esan zuen amak negar zotinka

-Agur.

Xabierrek atea gurutzatu zuen eta bere etxean agertu zen.

-Zer moduz pasatu duzu eskolan? -galdetu zuen bere amak.

-Zer! Aste bat egon nahiz kanpoan -gehitu zuen Xabier.

-Umeak eta bere lelokeriak, bakarrik ordu batzuk pasatu dira eta. Zortearen gailera bat nahi?

-EZ!

AMAIERA